



2010EKO URRIAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko urriaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Angel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko irailaren 30ean egindako bilkurako akta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ordenantza fiskalen aldaketaren puntuan puntualizatu nahiko lukeela esan zuela baita ere gustatuko litzaiekela behar bada krisi garaian hain beharrezkoak ez diren aurrekontuko hainbat gastu jasotzen diren partidak aldatzea eta aipamen hau ez dela jasotzen.

Gainontzean akta dagoen bezala onartzen da bertaratutako guztien aldeko botuekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOAN UDALA BERTARTATZEA.-

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak idatzia bidali du Udal honetara, C.A.F.ek errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartearri dutela jakinaraziz. Aipatu errekurtsioa, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ko "C.A.F."- Plan Bereziaren behin-betiko onarpena eta aipatu dokumentuaren testu bateratuaren behin betiko onarpenaren aurrean jarritako birjarpen errekurtsioaren aurrean Lazkaoko Udalak 2010-05-27an hartutako erabakiaren aurkakoa da.



Honen aurrean, alkatetzak, 2010eko urriaren 25eko alkatetzaren ebazpen bidez zera ebatzi zuen:

1. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salara eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
2. Espedientearen interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekurtsioan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
3. Udala prozedimentuan bertaratzeari, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurak erabaki hauek berretsi ditzan proposatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzaren ebazpenean hartutako erabakietan berrestea erabakitzen du.

IV.- "KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA 4. FASEA" PROIEKTUKO LANEN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA.-

"Kiroldegiaren birmoldaketa 4. fasea" obraren lanak burutzea prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

Horretarako irekitako baliozko epearen barruan honako proposamenak aurkeztu direla kontutan izanda:

- AZSE, S.L.
- Manuel Etxaide, S.L.
- Antia, S.L.
- Pedro Iparragirre, S.L.
- Ekolan Obras y Servicios, S.L.
- Otegi-Gaztañaga, S.L.
- Saiatu, S.A.
- Lurgoien, S.A.
- Ingeslan, S.L.U.
- Altuna y Uria, S.A.
- Construcciones Artzamendi, S.A.
- Bernedo Obras y Servicios, S.L.

Ikusirik proposatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, proposatzaile guztiak onartuak izan direla Manuel Etxaide, SL ezik, obra buruaren betebeharrak behar adina ez argitzeagatik.

Ikusirik proposamen tekniko guztiak baloratuta eta eskeintza ekonomikoaren eta berme epearen balorazioa gehitu ondoren, puntu gehien jasotzen dituen eskeintza Otegi-Gaztañaga, SL enpresak aurkeztutakoa dela.

Ikusirik Otegi-Gaztañaga, SL enpresaren eskeintzan balore arraro edo desproporzionatuak kontsidera daitezkeenak ikusi direla eta entzutealdi tramitea eman ondoren, eta enpresarekin izandako bileraren ondoren eta honek ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, zerbitzu teknikoek Otegi-Gaztañaga, S.L.ren eskeintza ez dela teknikoki bideragarria ondorioztatuz txostena egin dute.



Baliozkotzat jotakoen artetik eta udalarentzat abantailatsuena izateagatik, Kontratazio Mahaiak kontratuaren behin-behineko esleipena 9 zbk.dun proposamenaren egilea den INGESLAN, S.L.U.ren alde egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Alkateak esaten du osoko bilkurak kontratu honen behin-behineko esleipena egiteko ahalmena beregan eskuordetu bazuen ere, osoko bilkura egiteko egunarekin bat izanik, nahiago izan duela osoko bilkurara ekartzea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) bere kexua azaltzen du orain artean inolako dokumentaziorik jaso ez dutelako.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta aldeko 8 botu (EAJ, Alternatiba), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Licitazio egintza baliozkoa aitortzea.

Bigarrena.- Lazkaon "Kiroldegiaren birmoldaketa 4. fasea" obraren lanak burutzeko lehia-keta, Udalarentzat proposamenik abantailatsuena izateagatik, behin-behinekoz INGESLAN, S.L.U.-ri esleitzea, MILIOI BAT EHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO eta BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (1.163.766,56 €)-tan, B.E.Z. barne.

Hirugarrena.- Behin-behineko esleipena esleituak izan ez diren proposatzaile guztiei jakinaraztea.

Laugarrena.- Behin-behineko esleitzailari, eba~~z~~ pen honen jakinarazpena jasotzen duenetik 15 lanegunetako epean, behin-betiko bermea jar dezan, hala nola, Baldintza Administratiboen Ple~~g~~ guko hamaseigarren klausulan adierazten den dokumentazioa, aipaturiko dokumentazioaren ekarpena egin ez bada, ekar dezan eskatzea.

Bosgarrena.- Kontratuaren behin-behineko esleipena kontratatzailearen profileen argitaratzea.

V.- 2011KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2011 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Inazio Estensoro zinegotziak, Hazienda Batzordearen presidente gisa, esaten du 2011ko aurrekontu honetan 2010eko zenbatekoak jarri direla orohar, Kontsumoko Prezioen Indizearen igoerarik aplikatu gabe. Esaten du baita ere gure hornitzaile guztiei gutuna bidaliko zaiela 2011n udal honek ez duela igoerarik onartuko esanez, nahiz eta aurretik izenpetuta dauden kontratuetan hori betetzeko zailtasunak egongo direla jakin. Esaten du baita ere gastua murrizte aldera, gastu-leku diren arloetako jendearekin ekipoak osatu eta hausnarketak egiteko asmoa dagoela. Azkenik, esaten du, orokorrean inbertsiorik ez dela jarri bi salbuespen izan ezik, eta bi salbuespen hauek hasita dauden gaietakoak direla, bat, kiroldegiko lanen obra-zuzendaritza, 80.000 € jarri direlarik, eta bi, 2011ko tokiko obra planean barneratutako Elozegi Kaleko Bidegorria egiteko 330.000 € jarri direlarik,



obra hau beharrezkoa jotzen delarik bidegorriak Diputazioak egingo duen zatiarekin lotura izan dezan.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko osoko bilkuran aipatu zutela partida batzuk murriztu edo agian kentzeari buruzko hausnarketa, krisi egoeran gaudenez dauden ia baliabide guztiak gaur egun handitzen doazen gaietara bideratu beharko liratekela uste dutelako, hau da, gai soziletara eta gizarte larrialdietarako gaietara. Esaten du baita ere, gaur, urrian, urtea bukatzeko oraindik bi hilabete gelditzen direlarik eta hausnarketa askozaz ere sakonagoa egiteko aukera izanda, arinegi joatea iruditzen zaiela. Eta honengatik beraien jarrera abstentzioa izango dela

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko zortzi botu (EAJ, EB-B), aurkako bo-turik gabe eta hiru abstentzioz (PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2011 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua har-tzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2011KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.395.150 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.238.200 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.008.250 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	6.700 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA ETA HIRI-GINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTA-KO BESTE SARRERA BATZUK	100 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
		SARRERAK GUZTIRA	5.749.400 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.227.510 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZ. GAST.	3.059.072 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	15.100 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	476.418 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	410.000 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	125.300 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	435.000 €
		GASTUAK GUZTIRA	5.749.400 €

2011KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	808.365 €
SARRERAK GUZTIRA			808.365 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	45.315 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	58.600 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	704.450 €
GASTUAK GUZTIRA			808.365 €

2011KO UDALAREN AURREKONTU KONTSOLIDATUASARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.395.150 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.238.200 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.700 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	0 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	808.465 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0 €
SARRERAK GUZTIRA			6.557.765 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.227.510 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.104.387 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	73.700 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	476.418 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.114.450 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	125.300 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	435.000 €
GASTUAK GUZTIRA			6.557.765 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.



Hirugarrena.- Jendurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2011ko Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2011ko Lazkaoko Udalaren plantila organikoa, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

VII.- LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2011ko Udal Langileen Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2011ko Lazkaoko Udalaren Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

VIII.- BAKE EPAILEAREN AUKERAKETA.-

Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu-Idazkaritzatik idatzia jaso da Bake Epailera izendatu zenetik lau urteko epea amaitzear dagoela eta Osoko Bilkurak Bake Epaila titular eta ordezeko karguetarako aukeraketa egin dezan eskatuz.

Hau honela deialdi irekia egin da, herrian zehar hala nola Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak jarritz eta baita ere prentsako herriko kronikan kargu hauetarako interesatuek beraien izena Udaletxean eman zezaten eskatuz.

Honen ondorioz sei herritar izan dira karguan interesatuta beraien izena eman dutenak.

Bere izena eman duten sei pertsonak ondorengoak dira eta beraien xehetasun pertsonalak bere espedientean jasotzen dira:

- Francisco Jesús Dávila Barreros.
- Mikel Begiristain Aranzasti.
- Iker Imaz Beldarrain.
- José Javier López Ruiz de Zuazo.
- Iñaki Valero López.
- Jesús Jabato Crespo.

Alkateak esaten du izena eman dutenen eskariak aztertu ondoren, bake epaile titularretarako Mikel Begiristain Aranzasti jauna eta ordezeko bake epaile gisa Iker Imaz Beldarrain jauna izendatzearen aldeko proposamena planteatzen dela.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek bake epaile titularretarako Fco. Jesus Dávila Barreros jauna eta eta ordezeko bake epaile gisa Jesus Javato Crespo jauna izendatzearen aldeko proposamena egiten dutela.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bozketan jartzen du bake epailearen hautaketa.

Lehenengo alkatearen proposamena jartzen da bozketan eta aldeko 7 botu (EAJ), aurkako 3 botu (PSE-EE) eta abstentzio 1 (Alternatiba) jasotzen ditu.

Jarraian Serna zinegotziak aurkeztutako proposamena bozkatzen da eta aldeko 3 botu (PSE-EE), aurkako 7 botu (EAJ) eta abstentzio 1 (Alternatiba) jasotzen ditu.

Ondorioz alkatearen proposamena onartzen da aldeko zazpi botuz eta beraz eta udal osoa guztira hamahiru lagun direla kontutan izanda, gehiengo osoaren aldeko botuarekin.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

